# URTE BARRI EGUNERAKO

Urte barri kari
Txarri belarri
Deukonak eztekonari
Nik eztaukot eta niri

Apalaziyo saldune
Gaur urte barri egune
Sotzak eta paluek
Txori biyaren kontuek

Mari Manuri eroantsiez
Iru ollenda katue

Emongo bozu emoizu
Baldin emongo badozu
Zeure begire gagozen artien
Egiten yaku berandu

Apalaziyo miri montañe
Iru intxurtxu ta lau gaztañe

# ERREGEN EGUNERAKO

Erregen kari
Txarri belarri
Deukonak eztekonari
Nik eztaukok eta niri

Apalaziyo saldune
Iru Erregen egune
Sotzak eta paluek
Txori biyaren kontuek

Mari Manuri eroantsiez
Iru ollenda katue

Emongo bozu emoizu
Baldin emongo badozu
Zeure begire gagozen artian
Eginten yaku berandu

Apalaziyo miri montañe
Iru intxurtxu ta lau gaztañe

Imprenta de A. Egurrola - Guernica

# ANTXINAKO GERNIKAKO MARIA-JESE
EDO
# GABON-KANTAK
## (LENENGO LAU EGUNETARAKO)

(1) Sakramentu Santua
Jesus onen gorputa,
Izan bedi munduan
Beti bedinkatua.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

1

Abendu Santu onetan
Kristoren jaiotzian,
Albista eder onegaz
Guztiok poz gaitian
Maria, Jose
Jesus, Maria.

2

Adan sortua izan zan
Lurrian lenengua,
Pekatu eguin eban
Paradisu dontsuan.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

3

Eguzki Jainkozkua
Gaubaren gau erdian
Etorri zan mundura
Belenengo urianu.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

4

Trinidade altuko
Bigarren Personia
Gizon eginik dago
Belengo portalian.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

5

Astoak arrantzia,
Idiak arnasia,
Biak berotzen dabe
Jaio-dan Infantia
Maria, Jose
Jesus, Maria.

6

Patriarka Santuak
Linbuan deika dira:
Jauna etorri zaite
Zerura juan gaitian
Maria, Jose
Jesus, Maria.

7

¿Norda ba mandataria?
Gabriel aingerua
Ondo eingo dabena
Jaunaren aguindua.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

8

Idigi dira zeruko
Ate diamantezkuak;
Baita arekin batera
Leio zidarrezkuak
Maria, Jose
Jesus, Maria.

9

Maria Birjiñia
Grazia argiz betia,
Zeugandik Jaioko da
Jesus salbagillia.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

10

Espiritu Santuen
Egite ta graziaz,
Semia sortu izan da
Amaren Sabelian
Maria, Jose
Jesus, Maria.

11

Mirari ikusgarri bat,
Artzain askon artian
Benetan igaro zan,
Baso-mendi batian
Maria, Jose
Jesus, Maria.

12

Mendian egozala
Jagoten ganaduak,
Jatzi ziran zerutik
Kantetan aingeruak.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

13

Bedarra burukotzat
Ogetzat askatxua
Billos-billosik dago
Jaio-dan umetxua.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

14

Billosik bazagoz bero
Etzara zu pobria;
Zeruan josirik dago
Zuretzako erropia.
Maria, Jose
Jesus, Maria.

(1) Bertzo au, asikeran eta egunaro Andra Mariyako eleixa aurrian beleunbikotuta kantetan da.